

ASIGNATURA / IRAKASGAIA: Euskal Hizkuntza eta Literatura (A eredu)

Hautatu proposatutako aukera bat, A edo B

A Aukera

Nola bidaiatzen genuen Internet sortu aurretik?

Honela bidaiatzen genuen mundua abiadura izugarrian digital bihurtu aurretik.

Postalak bidali. Bai. Zigilu eta guzti. Twitter-en 140 karaktere idatz daitezke gehienez. Postaletan beste hainbeste esango genuke: "kaixo" idatzi, zerbait esan, eta agur. Ez zegoen gehiagorako lekurik. Postala handiagoa erosi behar zen horrelakoetan. Tamainak tamaina, zer zuen txarra postalak? Askotan, sorpresarako tarte gutxi uzten zuela, postala baino lehenago heltzen zinelako etxera. Eskerrak orain WhatsApp daukazu.

Non dago telefono-kabina? Etxera deitzeko gehien egiten zen galdera. Eta kabinak txanponak jateko makinak ziren. Zein azkar joaten zen dirua! Orain ez dugu txanponik behar, Skype bitartez hitz egitera ohitu baikara.

Irakurtzen hegazkinaren zain. Nahiz eta hegazkina garaiz ez etorri, entretenigarria zen aireportuko itxarrote-gelan irakurtzea hura iritsi arte. Orain doaneko wi-fi bila dabil mundu osoa, ero moduan. Eta Facebook eguneratzeko botoia sakatzen duzu, eta WhatsApp mila aldiz ikusten, ea mezu berriak dauden.

Argazkiak tantaka-tantaka. Karreteak mila pezeta (6 euro) gehi errebelatzea beste mila pezeta. Prezioak horiek izanik, asko pentsatu behar zenuen zeri atera argazkia. Orain edozein tontakeriari ateratzen diogu argazkia. Debalde da! Eta berdin du gorde, ezabatu edo filtro bat jarri eta Instagramera igo...

Bidaia diapositibak ikusteko elkartzea. Orain ez ditugu lagunak eta senideak bidaian ateratako argazkiak ikustera gonbidatzen. Egia esateko, lagunekin etxean geratzeko modu ona zen. Orain ere erakusten dira oporretako argazkiak, baina Flickr, Twitter, Pinterest edo Facebook-en partekatuz. Ez daukazu inorekin elkartu beharrik.

Hegazkineko bidaia-txartela segurtasun-kaxan gordeta. Ene, beti txartela galtzeko beldurrez! Hori bai zela arriskutsua! Itzultzeko txartelarekin ere beti kezkatan, batez ere hotelak edo apartamentuak segurtasun-kaxarik ez bazuen. Badaezpada ere onena soinean eramatea. Orain QR kodean daramazu hegazkinera edo itsasontzira igotzeko txartela.

Bidaiarako eta hotelerako txartelak bidaia-agentzian enkargatzea. Agentziara joaten zinen eta zure aurretik zegoenak mundu guztiko herrialdeez galdetzen zuen erabaki aurretik. Bazirudien berdin zitzaiola Caparrosora joan edo Patagoniara. Zure txanda tokatzen zenean, agentziakoak gomendatutako apartamentua nolakoa zen esaten zizun. Handik lau egunera esango zizuten hegazkinen lekurik zenuen ala ez. Alde ona bazuen: pazientzia izaten ikasten zenuen. Orain agentziak online daude, smartphone-tan eskura: dena berehala erosten da.

Toki batera iritsi, bertako jendeari galdetu herriko plazan... Jada ez dugu bertakoekin hitz egiten. Ezin jakin bertakoek ezagutzen dituzten toki eder horiek non dauden. Orain dena da GPS eta Google Maps. Itsu-itsu egiten diegu kasu.

<http://www.ikasbil.net/web/> (EGOKITUA)

GALDERAK (OHARRA: Parentesi arteko zenbakiak zein lerrotan dagoen adierazten du)

- 1.- Eman hitz hauen kasua eta numeroa: *lekurik* (3), *postalak* (4), *aireportuko* (8), *bidaian* (14), *jendeari* (26). (1 puntu).
- 2.- Testuingurua kontuan hartuz hitz hauen sinonimoa eman: *lekurik* (3), *iritsi* (9), *moduan* (9), *geratzeko* (15), *hitz egiten* (26). (1 puntu)
- 3.- Berridatzi esaldi hauek (1 puntu):
 - "postala baino lehenago heltzen zinelako" (4-5) (_____ bait-....).
 - "Skype bitartez hitz egitera ohitu baikara" (7) (_____ eta).
 - "Nahiz eta hegazkina garaiz ez etorri" (8) (_____ arren).
 - "bidaian ateratako argazkiak" (14) (_____ ... -(e)n _____).
 - "agentziakoak gomendatutako apartamentua" (23) (_____ ... -riko _____).
4. Testuaren ulermena: Leku gutxi izateaz gainera, zer zuen postalak hain ona ez zena? Zergatia eman. (1 puntu)
5. Testuaren ulermena: Zer nolako ondorioak ditu toki batera iritsi eta bertako jendeari hitz egin beharrean GPS edota Google Maps programak erabiltzeak? (1 puntu)
6. Testuaren ulermena: Lehen beti hegazkineko txartela galtzeko beldurrez... Nola egiten dugu orain? (1 puntu)
7. Idatzi testuari edota gaiari buruz gutxienez 150 hitz. (4 puntu).

Hirian, motoa, autoa, garraio publikoa edo oinez. Zer nahiago duzu?

Gurean gehienek autoa edo motoa erabiltzen dute hirian batetik bestera joateko. Gure herrietako airea garbia mantentzeko ekologistek behin eta berriz eskatutakoa ez da betetzen: autoak eta motoak etxean utzi eta garraio publikoa hartzea. Oinez joatea onuragarria da gure osasunarentzat eta ingurugiroarentzat ere bai. Bizikleta ere gero eta gehiago erabiltzen dugu, batez ere aldapa gutxi den lekuetan.

1

Zenbait ordutan trafikoa astuna izaten da eta autoz beteriko errepide batean gera gaitzke harrapatuta. Indian, adibidez, azpiegitura txiroak dituzte eta trafikoa kaotikoa omen da: zarata, freno-hotsak, autoak, bizikletak, motoak, moto-taxiak... errailen noranzkoa ere ez omen da errespetatzen. Tokion ere trafiko handia dago, Shinjukuko estaziotik, adibidez, egunean Euskal Herriko biztanleak adina auto igarotzen omen da. Auto-pilaketak, hala ere, gutxi ikusten dira bertan.

5

Maitane Etxeberria Burlatakoa da, eta askotan joaten da Bilbora. Ez du motorik, baina autoa bai. Alberto Domingo, berriz, Iruñekoa da baina Donostian lan egiten du. Albertok motoa eta autoa ditu bietan ibiltzea gustatzen zaiolako. Bi hirien arteko aldea, herritarren hautua eta ohiturak jakiteko asmoz, hainbat galdera egin dizkiegu biei, Maitaneri eta Albertori. Espero dugu honela gure zalantzak argitzea.

10

Donostian ibiltzeko motoa hobea dela esan digu Albertok: "Autoa zerbait handia eraman behar dudanean hartzen dut, edo bidaia eta distantzia handiak egiteko". Maitanek, berriz, eginbeharraren arabera aukeratzen du garraio publikoa erabili ala autoz joan: "Adibidez, erosketa zehatz bat egin behar badut autoan joaten naiz, lur azpiko aparkalekuak baitaude. Denbora gehiagorako bada, nahiago dut autobusa edo metroa erabili".

15

Hala ere, autoak baditu hainbat alde on. Esate baterako, "agian kotxea ez da hain txarra; izan ere, kuadrillako lagunekin joan zaitezke kotxean eta euria egiten duenean, motoa baino erosoagoa da, eta, gainera, ez gara bustitzen", esan digu Albertok. Baina alde txar asko ere badu Albertoren ustez: "Hirian autoz ezin gara ia ibili, joan nahi dugun lekura iristea kosta egiten da, eta uste baino gehiago urduritzen gara". Motoak, berriz, onura asko dituela uste du Albertok: "motoz ibiltzea oso eroso egiten zait, azkarra da, eta ematen duen askatasun-sentsazioa ere oso garrantzitsua da niretzat".

20

Maitanek motorik ez badu ere, abantailak dituela pentsatzen du: "Bizkortasun gehiago ematen digu, badakigu nola ibiltzen diren, autoaren albotik denak aurreratzen... eta motoa nahi dugun lekuan aparka dezakegu".

25

Eta zu, hiriburuetan nola joaten zara, zer nahiago duzu, oinez, garraio publikoaz, autoz ala motoz ibili?

Ariane Retegi, *Ikasbil* aldizkari digitala, 2015-10-28, <http://www.ikasbil.eus> (EGOKITUA)

GALDERAK (OHARRA: Parentesi arteko zenbakiak zein lerrotan dagoen adierazten du)

- 1.- Eman hitz hauen kasua eta numeroa: *hirian* (1), *herrietako* (1), *osasunarentzat* (3), *herritarren* (12), *lagunekin* (19). (1 puntu)
- 2.- Testuingurua kontuan hartuz hitz hauen sinonimoa eman: *berriz* (11), *zalantzak* (13), *agian* (18), *esan* (20), *asko* (20). (1 puntu)
- 3.- Berridatzi esaldi hauek (1 puntu):
 - "ekologistek behin eta berriz eskatutakoa ez da betetzen" (2) (_____ ...(e)na _____).
 - "autoz beteriko errepide batean" (5) (_____ ... -tako _____).
 - "bietan ibiltzea gustatzen zaiolako" (11-12) (Zeren eta _____ ...-n).
 - "lur azpiko aparkalekuak baitaude" (17) (_____ eta _____).
 - "Maitanek motorik ez badu ere" (24) (Nahiz eta _____).
4. Testuaren ulermena: Zein helbururekin eskatzen digute ekologistek garraio publikoa hartzea? (1 puntu)
5. Testuaren ulermena: Auto asko igarotzen dira Tokioko Shinjukuko geltokitik? Zenbat? (1 puntu)
6. Testuaren ulermena: Zeren arabera erabakitzen du Maitanek garraio publikoa ala kotxea? (1 puntu)
7. Idatzi testuari edota gaiari buruz gutxienez 150 hitz. (4 puntu).